

ETB, Bilbora

Negoiazioa derrigorrezko

BILBO. Iraultzen

ETBren Bilboko egoitza berriaren inaugurazioaren glamourra kolokan izan zen egun batzuk lehenago, ETBko langileek greba eta mobilizazio deia eginda baitzuten ordurako.

Zergatik doa ETB Bilbora, Iurretako egoitza zuta? Batetik besterakoaren atzean, interes asko dago, eta gutxi dira izaera profesionalekoak. Duela bost urte, leku aldatzea erabakitzeke Zuzendaritzak argudiatu zuen Bilbon izanez gero, informazioak azkarrago landuko zirela; digitalizazio prozesua ezin zela Iurretan gauzatu toki faltagatik, bertako egoitzaren handitzea oso garestia zela, batez ere inguruko lurren prezioagatik eta Iurretako udalak jarritako trabengatik.

Bere garaian aitzakiak banan-banan errefusatu zituen langile batzordeak, zuzendaritzaren kontraesanak eta azpijokoa agerian utziz. Egoitza Bilbora eramanez gero informazioak lantzeko denborak laburtu baino luzatu egingo ziren trafiko arazoek sortzen duten denbora galerengatik, adibidez. ETB Iurretan den EAEko erdigune geografikoan jartzearen arrazoiek oraindik zentzua dute: sartu eta ateratzeko erraztasuna, herrialdeen arteko informazio orekatuagoa lantzeko aukera, gonbidatuentzako baldintza arinagoak, eta abar.

Digitalizazio prozesua aurrera eramanez daitezke Iurretan bertan, egoitza handitze eta egokitzearrekin. Gaur egun, zerbait egin dela jadanik. Eta inguruko lurra Eusko Jaurlaritzarena izanez —ezkutatu zuten datua bestalde—, garestiegia izango litzatekeela ezin da argudiatu. Iurretako udalak ere ezin izan zuten trabarik jarri zabaltze eskaera bati, ETBren aldetik eskaerarik ez baitzen egin.

Langileen egoera

Arazo hauei gehitu behar zaie langileei leku aldatzeagatik sortzen diren maila ezberdineko kalteak: %67arentzat zuzenak dira, bereziki lantokia etxetik lehen baino askoz urrutiago dagoelako. Langileen batzordeak gaia mahai gaineratu zuen duela bost urte, baina geroztik zuzendaritzaren jokabidea utzikeria programatua izan da, denbora pasatzen uztea alegia, azkenean kalte ordainak negoziatzeko inolako asmorik ez zuela garbi frogatuta gelditu delarik.

Langileak mobilizatzen hasi direnean soilik onartu dute batzordearekin mahaiari esertzea. Lanuzte laburrak, elkarretaratzeak, pilota partidaren finale-



Goiko argazkian, langile batzordean, Legebiltzarren aurrean. Aldamenekoan, Iurretan egindako elkarretaratzea.

an pankartarekin ateratzeak, oharrak, erakunde ezberdinekin harremanak... kezkatu egin zuten zuzendaritza, zer esanik ez inaugurazio ponpoxoa eta hauteskundeak aurrean izanda. Leku aldatzea abuztuaren amaieran gauzatu nahi izatea ez zen taktika makala izango EITBren aldetik, aurrean dituzten langileen ordezkariek izango ez balituzte.

Halere, eta esertzer behartuta baziren ere, ez zuten onartzen kalte ordainik negoziatzera derrigortuta zeudenik, leku aldatzea ez delako "mugikortasun geografikoa", ezta "lan baldintzen aldaketa nabarmena" ere (LE 40. eta 41. artikulua). Langileen mobilizazioak horretara bideratu ziren beraz, zuzendaritzak bere burua negoziatzera derrigortuta ikusteko.

Zuzendaritza, behartuta

Azkenean, PRECOra jo da. Langileen ordezkariek LABek egindako kontraproposamena bere eginenez kontziliazioan aurkeztu zuten: negoziazioa derrigorrezkoa ez bazen ere, akordioan egon ezean PRECOko bitartekari batek erabaki zezala kalteordaina. Erantzuna espero zitekeena izan zen, La-kuako Gobernuari galdetu behar ziotela.



Batzordearen negoziatzeko borondate ona argi zelarik, nabarikoa zen zuzendaritzaren borondate txarra. Ez soilik zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzarena ere, erantzuna ezezkia izan zelako: ez dutela PRECOren arbitrajetik ezta bitartekaritzarik onartzen, nahiz eta Lan Hitzarmenak derrigortasuna jasotzen. Hala ere, inaugurazio egunean gerta zitekeenaz kezkatu, negoziatzeko derrigortasuna onartu zuten, zergatik eta mugikortasun geografikoa dela onartzen dutelako.

Horretan dabilta beraz gaur egun langileen eta zuzendaritzaren ordezkariek, kalteak neurtzen eta ordainak negoziatzen, PRECO, apirilean amaitzeko konpromisoarekin.